


Antonio Cid, itzaleko izar handia

Beharbada gutxik jakingo dute herrian Antonio Cid nor den. Gehientsuenok ordea, noizbait bere "laborategitik" atera diren izarrak entzunak eta ikusiak izango gara. Atletismoaren munduaz zerbait dakien orok ordea, jakingo du azken 15 urteotan kirol honen bultzatzaile nagusienetako bat bera dugula. Bere eskutik plazaratu da besteak beste, Javier Villalobos saltatzaile bikaina. Egun, Euskadiko jauzi espezialitateko lehendakaria du, eta Sallabenteko eskoletan duen txoko batean dihardu entrenatzaile, berak gehien maite duena eginez, dakiena besteei irakatsiz.



DROGETENITTURRI- ORAIN DELA 15 URTE HASI ZINEN ATLETISMO MUNDUAN; EZ DA GUTXI...

Antonio Cid- Bai, hala da. Duela 15 urte hasi nintzen eskola mailako ume gazteekin. Hasieran atletismoaren modalitate guztiak irakasten nituen, hau da, jauzia, korrika eta abar.

D.- ONDOREN JAUIZIAN ESPEZIALIZATU ZINEN.

A.C.- Estatuko begirale titulua eskuratu nuen, eta niri gehien gustatzen zitzaidana jauzia zenez, hau da,

altuerako jauzia, jauzi hirukoitza eta pertiga, horixe egitea erabaki nuen.

D.- ZENBAT GAZTE ENTRENATZEN DUZU GAUR EGUN?

A.C.- 15 gazte daude nirekin, Ermukoak eta Eibarkoak.

D.- EDOZEIN GAZTEK ENTRENA DEZAKE ZUREKIN?

A.C.- Bai. Soilik federatua behar du egon. Dena den, daukadanarekin aski dut, eta denbora ere ez dut soberran.

D.- SALLABENTEN ESKOLETAN DUZUN "LABORATEGIA" EZ AL DA URRIEGIA?

A.C.- Ez pentsa. Momentuz daukagunarekin ondo moldatzen gara. Arriskurik handiena lesioa kontueta-rako da, lurra gogor samarra baita. Eibarko Unbeko instalakuntzetara ere joaten gara.

D.- LESIO KONTUETAN LAGUNTZARIK BAZUZU?

A.C.- Instalazio faltarekin batera, horixe da gure arazo nagusia. Dena den, "Indartu" ere herrian iza-

Maite
Jleapaindegia

Kaltxango 17, 3.a - 48260 ERMUA (Bizkaia)

ERMUA

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA **ALDAGAILUAK**

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 70 28 33 # EIBAR

teak asko laguntzen digu.

D.- ENTRENATZAILE GOGORRA ZARA?

A.C.- Ez naiz gogorregia. Gazteekin biguintasuna ere azaldu behar da. Pedagogoa ere egin behar da askotan. Entrenamendura denbora galtzera etor ez dadin irakatsi behar izaten zaie.

D.- EPE MOTZERA IZARRIK BAI?

A.C.- Javier Villalobos lesioa gainditua duela erakusten ari da, eta apurka-apurka goruntz doa. Honen ostean, Jorge Vega eta Sergio Campo gazteek, lesio kontuetan zortea badute behintzat, emango dute zeresana.

D.- POLIKIROLDEGIA ERE LAISTER DA...

A.C.- Nire kasuan horrek ez ditu gauzak asko aldatuko. Bazkidez gaitzeka izango da eta instalakuntzak urri.

D.- NOLA IKUSTEN DUZU ZURE BURUA BOST URTE BARRU?

A.C.- Gaur egunean bezala. Lanean gazteekin eta Sallabenten ditudan instalakuntzetan. Udalarari kirolekin gehiago inplikatzeko eskatu nioke, eta baita ere, jende gaztea animatu atletismoko begirale gehiago izan daitezen, haurrak prest baitira hori praktikatzeko.

*Testua: Asier Ibaibarriaga
Argazkiak: Santos Vega*




KALITATEZKO IRAKASKUNTZA



- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANOA
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA

ezkontzetan kantatzen dugu



barnek diseinua
essei

belen pardo
jaione castañeda

proiektuak, erreformak eta lan-zuzenketa etxebizitza, bulego zein merkataritza-lokaletan.
erakusleihogintza.

komentukua 1.ataria 1a
48260 Ermua. Bizkaia
tel. 943. 17 68 45 - 17 43 79

Eguzki Lore
LORADENDA

Goienkale z/g

Tel. 943 / 17 28 88 - 48260 ERMUA (Bizkaia)

lore-konposaketa

